

OLERKIAK**Gerizpean ondarrutarra**

Ezagutu nuen, behin, lagun bat
 hitzik ahoskatzen ez zuena;
 mundua sabelean bilduta
 gerizpetik
 bizi gintuena.

Izan nuen, behin, lagun bat
 garrasika isiltzen ez zena;
 bizitza patrikatik ihesi
 sorpresak
 zigortu zuena.

Maitatu nuen, behin, lagun bat
 oihartzunak aurkezten zuena;
 bakarra izateagatik
 bere izena
 ikusezina bilakatu zena.

Gogoratzen dut, orain, lagun hari
 sabela isiltzeagatik,
 patrika zarratzeagatik,
 bere ideiak urkatzeagatik,
 “mutuaren semea” deitzen geniola.

Nire herriko gaztelua

Bada nire herrian
gaztelu bat
nire ametsen gotorleku dena.

Gotorleku bat
oroimenaren osinean
umetako lagunak gordetzen dituen.

Txikitako lagunak
algara artean
kuleroak busti arte alegeratu nindutenak.

Algara irekiak
haizera zabalduko maindire garbietan
fantasiatzko ametsak eragiten zizkidatenak.

Amets fantastikoak
neba-arreben odolarekin zin eginda
gotorlekuan giltzapetuta gelditu zirenak.

Bada nire herrian
sekretu guztien atea
agortutako putzuan hondoratuta dagoena.

Putzurik sakonenean
oroitzen dudan ametsean
egunero agertzen zaidan gaztelua.

Tingloian

Saturraran begi aurrean
untziolako pinturak ipurdi bistan
kaioak arrain lapurretan
eta zigarrokinari azken urrupada ezpainpean

Tarzanen gure etxea oihan
Valle de los Caidos-en azpian
handiko urik ez genuen edaten guk
ez kareari iragazten zitzaion memoriatik

Eta turruna urrunean...
“Han, atune sartu de”
sokak elkarri totuta
amets egiten
zerura bidean

Akila-mendi baino harago dihoazkit orduko irudiak
beste mundu bat deskubritu nahian ginen abiatu
baina kresalaren sundak ez nau sekula utzi
ortzadarraren koloreak eskaini arren, nire herriari.

Tingloiari.

Olatuaren garra

Zoaz eta bazatoz
zaude eta ez zaude
orain lasai, gero haserre
maite nauzu eta ez nauzu ezagutzen

Horregatik

Horregatik nago eta ez nago
horregatik noa eta banator
ez zaitut nahi orkatiletan
baina behar zaitut leihoaren ondoan

Urkatuta naukazu betirako
kresal bihozkabeak zainak heldoilduta!
Urrunetik zatoz
apar bitsetan,
apurka-apurka banator
desagertuen bidean.

Urazalak tatuai
dakar ageri
marinel urrunaren
mezu itoa igeri.

Zoaz eta bazatoz
zaude eta ez zaude
horregatik nago eta ez nago
horregatik noa eta banator

Ana Urkiza Ibaibarriaga